



KOADRILA ARTEKO BATELEN ESTROPADA

OLARRO EGUNEKO XVI. BANDERA

Olarro Eguna, 2024ko irailak 14

1. DATA ETA LEKUA:

- 2024ko irailaren 14an goizeko 11:00etatik aurrera izango da.
- Olagarro eguneko Itsas kiroldegitik irten eta Txomin Agirre kairaino joan-etorria izango da.

2. IZEN EMATEA:

- Izen ematea **abuztuaren 26an zabaldu eta irailaren 6an itxiko da.**
- Parte-hartzaileen gutxieneko adina: 13 urte izango da (abenduarien 31n duten adina kontuan hartuta.). Kategoria bakarra izango da.
- Izen-ematea: Lubaki kiroldegian egingo da, eta nahitaezkoa izango da izen-emateko orria betetzea. Behin izena emanaz gero, parte hartzeko konpromisoa hartzen da.

3. TALDEAK:

- Talde bakoitza 4 pertsonen osatuko dute (batelean sartzen direnak), mutilak nahiz neskak.
- Bandera irabazteko ezinbestekoa izango da 4tik 2 zumaia irabaztea.
- Talde bakoitzak arduradun bat izendatuko du eta haren telefono zenbakia eman beharko du, harremanetarako.

4. ERANTZUKIZUNA

- Antolakuntzak ez du bere gain hartuko parte-hartzaileek beren buruari edo beste hirugarren bati egin diezaieketen kalte edota lesioen erantzukizunik.

5. SARIAK

- Irabazleentzat bandera eta Geoparkeak eskainitako bisita gidatua izango dute.
- Bandera irabazteko ezinbestekoa izango da 4tik 2 zumaia irabaztea.
- Sari banaketa estropada eremuan izango da. Ohiko banderaz gain, azken urteetan egin ohi den moduan, emakumeen partaidetza saritzeko beste bandera bat izango da. Parte-hartzaileen artean bisita gidatu bat ere zozkatuko da.

6. ENTRENAMENDUAK

- Irailaren 2tik irailaren 13ra Lasuna txalupa erabiltzeko aukera egongo da.
- Eskaera turismo bulegora presentzialki joanez edota telefonoz deituz egin ahalko da, beti ere, estropadan parte hartzeko izena eman ondoren. **Entrenamenduan txalupa eta arraunen ardura egokia ez duen taldeak ezingo du estropadan parte hartu. Taldearen ardura izango da erabilera baldintzak zein diren jakitea.**

7. ANTOLAKETA BILERA

- Zozketa egiteko bilera irailaren 11ean (asteazkena) 19:00etan izango da Aitzuri frontoian. Ezinbestekoa da talde bakoitzetik arduradun bat bileran izatea.